KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKI BIDEZ EGITEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA

1 **Karatula da kontratazio honen oinarrizko dokumentua, kontratuaren mota eta baldintzak zehazten eta finkatzen dituena.**
Beraz, Karatulan arautu gaben dauden alderdi guztiei aplikatuko zaie Plegu hau.

AURKIBIDEA

I. ZATIA. PROZEDURA IREKIETAKO LIZITAZIO, ESLEIPEN ETA FORMALIZAZIOA

I. KONTRATUAREN ELEMENTUAK.

1. Kontratuaren xedea.
2. Araubide juridikoa.
3. Zergei, ingurumenari, emakumeen eta gizonen berdintasunari, enpleguaren babesari, lan-baldintzei, laneko arriskuen prebentzioari eta ezgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari buruzko informazioa, ezgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra, eta datuen babesa.
4. Kontratuaren atalak.
a) Administrazio kontratatzailea b) Kontratista
5. Kontratuaren balio zenbatetsia eta kontratuaren hasierako aurrekontua.
6. Aurrekontu-kreditua izatea.
7. Kontratuaren iraupena eta luzapena.
8. Kontratazio espedientearen tramitazioa.

II. LIZITAZIOA.

9. Esleitzeko prozedura.
10. Lizitazioaren publizitatea.
11. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna.
12. Parte hartzeko baldintzak.
13. Aurkezteko epea, tokia eta modua.
14. Dokumentazioa argitzeko oharrak.
15. Baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztea esleipen-proposamenaren aurretik.
16. Enpresa lizitatzailearen ondorengotza prozeduran

III. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA KONTRATAZIO-MAHAIAREN JARDUNA.

17. Kontratazio-mahaia.
18. Kontratazio-mahaiaren jarduna. a) A,B,C gutun-azala irekitzea.
19. Ohiz kanpoko edo neurriz kanpoko balioak dituzten eskaintzak.
20. Berdinketa hausteko irizpideak.

IV. ESKAINTZEN SAILKAPENA, ESLEIPENA ETA KONTRATUA FORMALIZATZEA.

21. Eskaintzen sailkapena.
22. Esleipenaren aurretik aurkeztu beharreko agiriak.
23. Esleipena.
24. Kontratua hobetzea.
25. Kontratua formalizatzea.
26. Formalizatzeko epea.
27. Ez formalizatzearen ondorioak.
28. Aseguruak.

II. ZATIA: KONTRATUAREN ONDORIOAK, KONTRATUA BETETZEA ETA IRAUNGITZEA

B. KONTRATUA BURUTZEA

29. Lanen hasiera.
30. Kontratuaren arduraduna.
31. Lan programa.
32. Kontratua betetzea.
33. Ez-betetze partziala edo akastuna eta zigorrak.
34. Epea betetzea eta atzerapenagatiko zigorrak.
35. Prezioa ordaintzea.
36. Faktura elektronikoa.
37. Prezioen berrikuspena.
38. Lan eta gizarte betebeharrak.
39. Baliabide materialak eta pertsonalak.
40. Exekuzio baldintza bereziak.
41. Kontratua aldatzea.
42. Kontratua etetea.
43. Kontratuen lagapena.
44. Azpikontratazioa.
45. Kontratua betetzea.
46. Berme-epea.
47. Bermeak itzuli eta kitatzea.
48. Kontratua suntsiaraztea.
49. Administrazioaren prerrogatibak.
50. Kontratazio arloko errekurtso berezia.
51. Berraztertze errekurtsoa.

I. ZATIA. LIZITAZIOA, ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA PROZEDURA IREKIETAN

I.- KONTRATUAREN ELEMENTUAK

1. Kontratuaren xedea .

Kontratu honen xedea pleguaren Karatulan jasotzen den prestazioa da.

Prestazioa bat etorriko da Proiektuan, Plegu honetan eta Preskripzio Teknikoetan azaltzen diren baldintzekin, horiek kontratuaren parte izango baitira.

Pleguaren Karatulan horrela baimentzen bada, lizitatzaileek posible izango dute aurkeztea adierazitako baldintza eta betekizunei dagozkien aldaerak, puntu horretan zehaztutako gehieneko kopuruan.

Kontratua lotetan zatituz gero, lote bakoitzaren xedea unitate funtzional bat da, aparte egin daitekeena. Lote bakoitza bereiz esleitzen ahalko da.

Administrazio Pleguaren lehentasuna proiektuarenaren gainetik.

2. Araubide juridikoa.

Kontratuak izaera administratiboa du eta dokumentu hauek arautuko dute:

- Plegu honetako klausulak, bat datozenak Karatulako zehaztapenekin eta Baldintza Teknikoen Agiriarekin.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra (APKLEO) onartzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, partzialki garatzen duena Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 1987ko apirilaren 2ko Legea eta apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bidez onartzen den toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina.
- Toki Entitateen Zerbitzuen Erregelamenduaren 1II. titulua, 1955eko uztailaren 17ko Dekretuaren bidez onartua.
- Kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, bai Estatukoa, bai autonomia erkidegokoa eta tokikoa, eta toki esparruan aplikatzekoa dena.
- Osagarri gisa, Administrazio Zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, halakorik ezean, Zuzenbide Pribatuko arauak.

Hitzartutakoa betetzean aplikagarriak diren Kontratuari erantsitako dokumentuak, edo Administrazioak emandako jarraibide, plegu edo era guztietako arauak ez ezagutzeak ez du salbuesten kontratua bete behar izatetik.

Plegu honetan eta Preskripzio Teknikoen Pleguan ezarritakoaren artean desadostasunik izanez gero, Plegu honetan xedatutakoak izango du lehentasuna, salbu izaera teknikoko kontu eta zehaztapenei dagokienez.

3. Zergei, ingurumenari, emakumeen eta gizonen berdintasunari, enpleguaren babesari, lan-baldintzei, laneko arriskuen prebentzioari eta ezgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari buruzko informazioa, ezgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra, eta datuen babesa. (129. art.)

Erakunde hauetan lor daiteke gai hauei buruzko informazioa:

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa.
- Fiskalitatea: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako eta Nafarroako Foru Komunitateko Foru Ogasunak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.
- Ingurumenaren babesa: IHOBE Sozietate Publikoa.
- Enpleguaren babesa, lan baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza eta OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
- Ezgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, eta ezgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra: LANBIDE erakunde autonomoa.
- Datuen babesa:

  Erakunde edo pertsona esleipendunak konpromisoa hartzen du pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako eskakizunak betetzeko.

  Dokumentazioa biltzeko inprimakietako datu pertsonalak biltzeko beharrezkoa izango da ukituriko pertsonaren baimena. Datu horiek udal-kudeaketa zereginetarako baino ezingo dira erabili, eta beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaie, datuak babesteko legerian aurreikusitako mugekin, bereziki pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio libreari buruz ezarritako mugetan.

  Emandako datuak lanak bukatu ondoren suntsituko dira, eta bakarrik geratuko dira erantzukizunak argitzeko beharrezkoak diren datuak, betiere, datuak ezabatzeko eskubidea erabili arte, interes publikoak edo legezko betebeharrak ezarritako mugen barruan. Beraz, eskubidea egongo da datu pertsonalak eskuratzeko, datu okerrak zuzentzeko edo, datuak beharrezkoak ez direnean, haien eramangarritasuna edo ezabapena eskatzeko. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak hala eskatu ezik.

  Era berean, enpresa esleipendunak baldintza-orrian deskribatuko ditu bere konpainiak bildutako datuak babesteko dituen neurri teknikoak eta antolaketakoak, bereziki aipatuz Erregelamendua betetzen ote den, datu sentikorren arloan hartutako antolaketa- eta teknologia-neurriak, eta inpaktu-ebaluazioa egiteko balizko beharra.

Adieraziko da nor den prozesuen segurtasun arduraduna, eta Datuak Babesteko Ordezkari bat izendatuko da.

- **Jabetza intelektuala eta konfidentzialtasuna**
  - **Lanen jabetza intelektuala**. Kontratuaren ondorioz sortzen diren dokumentazio, informazio eta euskarri tresna guztiak Abadiñoko Udalaren jabetza bakar eta esklusibokoak izango dira, eta ezin izango dira erreproduzitu ez zabaldu jabearen idatzizko baimenik gabe. Halaber, espresuki hitzartzen da enpresa esleipen-hartzaileak edozein aldaketa edo sorkuntza egiteko oinarrian Abadiñoko Udala daukana, aldaketa edo sorkuntza hori Abadiñoko Udalarena izango dela, eta inolako mugarik gabe erabili, ustiatu eta laga ahal izango duela.
  - **Informazioaren konfidentzialtasuna**. Enpresa esleipendunak konfidentzialtasun eta erreserba osoa izan behar du kontratua betetzean jakin dezakeen edozein daturi buruz, bereziki datu pertsonalei buruz. Datu horiek ezin izango ditu kopiatu edo erabili Plegu honetan agertzen den helburua ez den beste ezertarako, ezta beste batzuei laga ere, ezta kontserbatzeko baino ez bada ere, Abadiñoko Udalaren baimen idatzirik gabe. Era berean, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du kontratua betetzean jakin dezakeen edozein dokumentazio eta informazio konfidentzialtasun osoz gordeko duela isilpean. Dokumentazio eta informazio hori ezin izango du kopiatu edo erabili Plegu honetan agertzen ez den ezein helburutarako, ezta beste batzuei lagako ere, ezta kontserbatzeko basino ez bada ere, Abadiñoko Udalaren baimen idatzirik gabe.
  - Erakunde esleipendunak eta bere zerbitzuko langileek bete egin beharko dute Datu Babeserako Europako araudira Espainiako zuzenbidea egokitzeko 5/2018 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa.
    Zerbitzua emateak fitxategi informatikoetan eta/edo paperean jasotako datu pertsonalak eskuratzea edo tratatzea ekar lezakeen kasuetan, esleipendunak konpromisoa hartzen du informazio pertsonalaren izaeraren arabera aplikatu beharreko segurtasun-neurriak hartzeko, eta neurri teknikoak eta antolaketakoak hartu beharko ditu datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta eragozteko datu horiek aldatu, galdu, tratatu edo baimenik gabe eskuratu daitezen.
    Kontratua bukatu ondoren, datu pertsonalak dituzten euskarri edo dokumentu guztiak itzuli beharko diraa.

4. Kontratuaren atalak.

A) Administrazio kontratatzailea.

Kontratatzeko eskumena.- Kontratazio-organoa Plegu honetako Karatulan adierazitakoa izango da.

Kontratuaren arduraduna.- Hala badagokio, Plegu honetako Karatulan adierazitakoa, edo kontratazio-organoak izendatzen duena kontratua burutzeko.

San Trokaz plaza, 1
48220 ABADIÑO (Bizkaia)
tel.: : 94 621 55 30
Faxa: 94 621 55 37
www.abadiano.org

Kontratatzailearen profila.- Plegu honen Karatulan adierazitakoa.

Web instituzionaletik iritsiko da bertara, eta kontratazio-organoaren kontratu-jarduerari buruzko datuak eta informazioa bilduko ditu.

B) Kontratista.

Kontratatzeko gaitasuna.- Pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerritarrek, kontratatu ahal izango dute Udalarekin baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, edo, SPKLk hala eskatzen badu, behar bezala sailkatuta badaude. Enpresariek, halaber, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko eska dakiekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

a) Pertsona juridikoak: beren estatutuen edo fundazio-arauen arabera berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruan dauden prestazioak dituzten kontratuen esleipendunak izan daitezke.
b) Europako Batasuneko Estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrak: kontratatzeko gaitasuna izango dute baldin eta gaituta badaude, kokatuta dauden Estatuko legeriaren arabera, dagokion prestazioa egiteko.
c) Enpresaburu elkarteak: Udalarekin kontratatu ahal izango dituzte horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen batasunak. Enpresaburuak elkartasunez beharturik geratuko dira, eta ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea harik eta kontratua beren alde esleitzen den arte. Era berean, elkaretaren ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, ahalmen nahikoa izango duena kontratua amaitu arte eskubideak erabiltzeko eta hortik eratorritako betebeharrak betetzeko, kopuru handiko kobrantza eta ordainketetarako botere mankomunatuak izan badaitezke ere.
Enpresaburuen aldi baterako elkartearen iraupena bat etorriko da kontratua amaitu arteko iraupenarekin.

5. Kontratuaren balio zenbatetsia eta kontratuaren hasierako aurrekontua.

Publizitatea eta esleitzeko prozedura zehazteari begira, kontratu honetarako balio zenbatetsia, Administrazioak jasan behar duen BEZa sartu gabe, Karatulan agertzen dena da.

Kontratuaren hasierako aurrekontua Administrazioak kontratu honetan egingo duen gastuaren gehieneko aurrekontuari dagokio, eta Karatulan ageri dena da (BEZa barne).

Eskaintzak aurkezteko erabiliko den lizitazio oinarria, zenbateko handiagoa duen edozein eskaintza baztertzea ekarriko duena, Karatulan ageri dena da, eta hobekuntza beheranzkoa izango da, kopuru jakin eta eta zehatz bat adieraziz.

Baldin prezioa zehazten bada prestazioaren osagaiei edo ematen edo gauzatzen diren unitateei dagozkien unitate-preziotan, Administrazioak eskubidea izango du kontratuaren urteko gehieneko gastuaren aurrekontuaren %20 gutxienez aldatzeko, onartuz horretarako dagokion aurrekontu-doikuntza gastuan.

6. Aurrekontu-kreditua izatea.

Administrazioarentzat kontratu hau betetzetik sortzen diren betebehar ekonomikoei aurre egiteko behar den kreditua badago, eta bere zuzkidura Plegu honen Karatulan ageri dena da.

Aurretiazko tramitazioko kontratazio-espedienteetan, kasuan kasuko ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintza etenarazlearen menpe egonen da esleipena.

7. Kontratuaren iraupena eta luzapena.

Kontratuaren gehieneko iraupena edo burutzeko epea Plegu honetako Karatulan adieraziko da.

Traktu bakarreko kontratuak: kontratua burutzeko epea da:

a) Eskaintzek ezin badute proposatu epe osoa eta/edo epe partzialak murriztea, Karatulan adierazitakoa.
b) Eskaintzek posible badute proposatzea epe osoa eta/edo epe partzialak murriztea: esleipendunak eskainitakoak.

Epe horiek bakarrik luzatu ahal izango dira SPKLaren 195.2. artikuluan zehatzutako eran.

Segidako traktuko kontratuak: kontratuaren iraupena eta, hala badagokio, epe partzialak, Karatulan adierazitakoak dira.

-Kontratuaren luzapena:

1. Kontratua luzatu ahal iznago da Karatulan hala xedatzen denean. Kontratazio organoak posible du kontratua luzatzea, eta hau derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat, baldin eta aurreabisua gutxienez kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago egiten bada.

   Luzapena kontratazio organoaren ebazpen baten bidez erabakiko da, eta hauxe izango da horretarako prozedura:

   a) Kontratua sustatzen duen organoaren txostena, zehaztuz kontratu harremana, prezioa eta epea luzatzeko premia dakarten interes publikoko arrazoiak.
   b) Bost (5) egun balioduneko entzunaldia kontratistari.
   c) Txosten juridikoa.
   d) Kontrol ekonomiko-fiskalaren aurretiazko fiskalizazioari buruzko txostena, hori egitetik salbuetsita ez dagoenean.
   e) Kontratazio-organoaren ebazpena

2. Hala ere, SPKLren 29.4 artikuluarekin bat etorriz, kontratu bat iraungitakoan ez bada formalizatu kontratu berri bat bermatuko duena kontratistak jarraituko duela ematen hitzartua daukan prestazioa, esleipen-prozeduran izandako kontratazio-organoak aurreikusi ezineko gertaeren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak

egon ezkero zerbitzua ez eteteko, hasierako kontratua luzatu ahal izango da, harik eta kontratu berria gauzatzen hasten den arte eta, kasu guztietan, bederatzi hilabetez goitik jota, batere aldatu gabe kontratuaren gainerako baldintzak, baldin eta kontratu berriaren lizitazio-iragarkia argitara eman bada jatorrizko kontratuaren amaiera eguna baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

Kasu horretan, kontuan harturik luzapen hori aurreikusi ezina izan dela eta ez dela kontratazio organoaren borondatearen ondorio, luzapen hori ez da kontuan hartuko balio zenbatetsia finkatzerakoan, eta ez da aplikatuko arestian aipatu den aurreabisuko betebeharra.

Luzapenak kontratua bukatu baino lehen onartu beharko dira.

8. Kontratazio espedientearen tramitazioa.

Kontratazio espedientea modu arruntean, presaka nahiz larrialdiz tramitatuko da, Plegu honen Karatulan adierazitakoaren arabera.

Presaka.- Presazkotzat jotako espedienteak arrunten prozedura berari jarraituz tramitatuko dira, berezitasun hauekin: (119. art.)

a) Espedienteek lehentasuna izago dute tramitazioan parte hartzen duten organoek tramitatzeko, eta bost eguneko epea izango dute dagozkien txostenak egiteko edo tramiteak betetzeko.
b) Administrazioak eskua dauka erabakitzeko kontratua gauzatzen hastea, nahiz eta kontratua formalizatuta egon ez, baldin eta dagokion bermea jarri bada, hala badagokio.
c) Kontratua gauzatzen hasteko epea gehienez hilabetekoa izango da, kontratua formalizatzen denetik hasita. Epe hori gaindituz gero, kontratua desegin ahal izango da, salbu eta atzerapena Udalaz eta kontratistaz kanpoko arrazoiren batengatik gertatu bada eta hala jasotzen bada dagokion ebazpen arrazoituan.

Larrialdiz.- Larrialdiko tramitazioko espedienteek salbuespenezko araubide berezi hau izango dute:

- Kontratazio-organoak, administrazio-espedientea tramitatu beharrik gabe, agindua eman dezake egin dadin behar dena gertatutakoa konpontzeko edo sortutako beharra asetzeko, edo agindu dezake askatasunez kontrata dadila bere xedea, osorik nahiz zati bat, SPKLn ezarritako baldintza formalak bete gabe, ezta behar adinako kreditua behar dela dioena ere. Dagokion akordioarekin batera dagokion kreditu atxikipena edo kreditu aldaketako espedientea hasita dagoela frogatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da.
- Prestazioak gauzatzen hasteko epea gehienez hilabetekoa izango da, aurreko lerroaldean aurreikusitako erabakia hartzen denetik hasita. Epe hori gaindituz gero, prozedura arrunta tramitatu beharko da prestazio horiek kontratatzeko.

II. LIZITAZIOA

9. Esleitzeko prozedura.

Kontratu honen esleipena prozedura IREKI bidez egingo da, esleipen-irizpide bakar bati edo hainbat esleipen-irizpideri jarraiki, Karatulan xedatutakoaren arabera, Plegu honetako hurrengo ataletan ezarritako baldintzen eta betekizunen arabera eta SPKLko 159. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Prozedura irekian, interesa duten enpresaburu guztiek aurkeztu ahal izango dute proposamen bana, eta kontratuaren baldintzak ezingo dira negoziatu lizitatzaileekin.

10. Lizitazioaren publizitatea. Lizitatzaileekiko komunikazioak.

Lizitazio iragarkia Abadiñoko Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Udalaren web orrian (www.abadiño.org) eta www.contratacion.euskadi.eus Kontratazio Plataforman.

Lizitatzaileei egin beharreko komunikazio eta jakinarazpenak, bidezkoak badira, lizitatzaile bakoitzari dagozkion mezu elektronikoen bidez egingo dira, B eta C gutunazalak irekitzeko egintzen kasuan salbu. Horiek kontratatzailearen profilean jakinaraziko dira, eta lizitatzaileek profil hori kontsultatu beharko dute.

11. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna.

Kontratazio organoak berdintasunezko eta bereizkeriarik gabeko tratamendua emango die lizitatzaileei, eta gardentasun eta proportzionaltasun printzipioari lotuko dio bere jarduna. Kontratazioan parte hartzea ezingo da mugatu forma juridikoaren edo irabazi asmoaren arabera, salbu eta, Karatularen arabera, laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren entitateentzako kontratuak badira.

Sektore Publikoko Kontratu Legearen (SPKL) esleipenaren publizitateari eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruzko xedapenen kalterik gabe, kontratazio-organoek ezingo dute zabaldu enpresaburuek eskaintza aurkeztean eman duten informaziotik haiek konfidentzialtzat jo dutena.

Izaera horrek, bereziki eragiten die sekretu tekniko edo komertzialei, bai eta eskaintzen alderdi konfidentzialei eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziori ere, dela lizitazio-prozedura honetan, dela hurrengoetan.

Kontratazio-organoak ezingo du zabaldu informazio hori bere baimenik gabe.

12. Parte hartzeko baldintzak.

- Kontratuaren xederako proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, aurrerago zehazten den moduan, jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoek, Espainiakoek edo atzerritarrek, baldin egiaztatzen badute behar den kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala edo, hala badagokio, dagokion sailkapena, eta zuzeneko lotura badute kontratuaren xedearekin, bakoitzaren estatutuetatik edo sorrerako arauetatik ondorioztatzen den moduan, eta antolakunde bat badute kontratua behar bezala burutzeko behar diren elementu pertsonal eta materialen jabe dena.

- Baldin Kontratua erreserbatuta badago, hurrenez hurren, gizarteratze-enplegurako zentro bereziei eta gizarteratze-enpresei, edo enplegu babestuko programen esparruan badago SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, edo erakunde jakin batzuei SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, parte hartu ahal izango dute bakarrik legez ezarritako baldintzak betetzen dituztenek.

-Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitaziora aterako denak baldintzarik gabe onartzen dituela plegu honetako klausulak, Karatulako zehaztapenak eta gainerako kontratu-agiriak, inolako salbuespenik gabe, zzuena dela aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla dioen erantzukizuneko aitorpena. eta betetzen dituela prestazioa kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak.

-Lizitazioan parte hartzeko, dokumentazioa hiru gutunazal itxitan aurkeztuko da (A, B eta C), ondoren esango den dokumentuekin. Gutunazal horietako bakoitzean adieraziko dira: lizitazioa, lizitatzailearen izena edo enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta proposamena sinatzen duenaren izaera, helbidea, telefono- eta fax-zenbakia eta posta elektronikoko helbidea jakinarazpenetarako, eta hori guztia irakurtzeko moduan. Gutunazalak lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatu beharko ditu nahitaez.

13. Aurkezteko epea, tokia eta modua.

- **Epea** : Eskaintzak aurkezteko epea kontratatzailearen profilean ageri da.
- **Lekua** : Proposamenak Karatulan adierazten den tokian aurkeztu beharko dira, nahitaez. Karatulan horrela adierazten bada, postaz aurkeztu ahal izango da.
- **Postaz bidaltzea:** Lizitatzaileak, onarpen-epearen barruan eta, beraz, 09:00etatik 14:00etara, dokumentazioa postaz bidaltzen badu, justifikatu beharko du lizitatzailearen izena, kontratuaren xedearen izena eta bidalketa posta-bulegoan zein egun eta ordutan jarri den, eta egun berean (24:00ak arte) jakinaraziko dio kontratazio-organoari (idazkaria@abadiano.eus) eskaintza posta elektronikoz bidali izana.

  Iragarkia posta elektroniko bidez bidaltzea bakarrik izango da baliozkoa baldin egiaztatuta badaude jakinarazpena igorri eta jaso izana, datak eta komunikazioen eduki osoa, eta baldin modu fidagarrian identifikatzen badira bidaltzailea eta hartzailea. Kasu horretan, kopia inprimatua lortuko da eta espedientean sartuko da.

Bi baldintza horiek bete ezik, proposamena ez da onartuko baldin eta iragarkian adierazitako epea bukatu ondoren jasotzen bada. Egun horretatik hamar egun natural igaro ondoren proposamena jaso ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

- Behin dokumentazioa aurkeztu edo igorrita, ezin da erretiratu, salbu eta justifikatzen bada hala egitea. Proposamena arrazoirik gabe erretiratzen bada, behin-behineko bermea betearaziko da eta diru hori Udal Diruzaintzan sartuko da.

- Epez kanpo aurkezten diren proposamenak ez dira onartuko inolaz ere. Plegu honen arabera gutunazal bakoitzak behar duen dokumentazioaz bestelakorik dakarten gutunazalak ere ez dira onartuko.
- Lizitatzaileek lau hilabetez eutsi beharko diote eskaintzari, aurkezteko epea bukatzen denetik hasita.
- **Aurkezteko modua**: Eskaintzak aurkeztuko dira Karatulan adierazitako modu eta gutunazaletan. Batzuetan bi kartazal baino ez dira egongo (A eta B), eta, beraz, kasu horietan, ondoren adierazten dena logikaz eta zentzuz irakurri beharko da, eta ez hitzez hitz.

A GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA :

.Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 141. artikuluko 4. Atala aplikatuz, posible izango da aurkeztea, a, b, c, d eta f ataletan ezarritako dokumentazioaren ordez, **eranskineko erantzukizunpeko adierazpena**, non adieraziko baita lizitatzaileak betetzen dituela Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak.

Dokumentazio administratiboa: (bakarrik aurkeztu behar da errekerimendua egiten bada eta esleipendun gisa proposatutako lizitatzailearen kasuan):

Esleipen-proposamenaren alde dagoen lizitatzaileak, kontratua esleitu baino lehen, agiri hauek badituela eta balio dutela frogatu beharko dio kontratazio-organoari:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo entitate baten izenean jardun ezkero, notario-ahalordea, entitate honek askietsia izanen dena gutunazal honetan aurkeztutako dokumentuak kalifikatzeko prozesuan.
b) Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa- edo aldaketa-eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskripzioa aplikatzekoa zaion merkataritzako legeriaren arabera egin behar denean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuak edo fundazio-egintza erabiliko dira. Horietan, jarduera arautzen duten arauak jasoko dira, eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuko dira.
   Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek eta gainerako enpresaburu atzerritarrek Plegu honetan xedatutakoaren arabera jarduteko gaitasuna frogatu beharko dute.
c) Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea frogatzeko ziurtagiriak.
d) Kontratistaren sailkapena, Karatulan zehaztua, hala eskatzen bada, edo Karatulan zehaztutako kaudimena.
   Kaudimen ekonomikoa urteko negozio-bolumenari badagokio, kontuan hartuko da merkataritza-legerian ezarritako urteko kontuen arauzko ereduetako galdu-irabazien kontuan ageri den negozio-zifraren zenbateko garbia, eta Pleguaren **eranskineko** ereduen arabera egiaztatuko da, dagokion eran.
   Kaudimen teknikoa eta profesionala Karatulan ezarritako eran egiaztatuko da.
   Enpresa-sailkapena integratuz gero SPKLaren 75. art.), bakarrik sailkapena eskatzen denean: **Eranskinean** zehaztutako erako Adierazpena**.**

e) Atzerriko enpresentzat, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela dioen adierazpena, eta, hala badagokio, uko egiten diola lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari.

f) Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa. Udalaren eta lizitatzaileen arteko komunikazioak posta elektronikoz eginen dira. Helebide elektroniko hori lizitatzaileek beren proposamenean adierazi beharko dute, deusetan ukatu gabe egindako egintzen publizitatea, legez bidezkoa denean.

Aurreko a eta b letretan adierazitako inguruabarrak (nortasuna, jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, lanbide- edo enpresa-gaikuntza) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren, Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren edo SPKLren 96. eta 97. artikuluetan ezarritakoaren araberako Erkidegoko sailkapen-ziurtagiriaren bidez egiaztatu ahal izango dira. Ziurtagiri horrek aurreko d) atalean aipatutako talde, azpitalde eta kategoriako sailkapena izan beharko du. Ziurtagiri horrekin batera, lizitatzailearen erantzukizuneko aitorpena (**Eranskina**) aurkeztu beharko da, esanez ez direla aldatu ziurtagirian adierazitako inguruabarrak.

Aurreko atalean aipatutako ziurtagiria elektronikoki luzatu ahal izango da. Kasuan kasuko erregistroan aurkezten den ziurtagirian jasotzen ez diren inguruabarrak frogatzeko, eskatutako agiriak aurkeztuko dira.
Gutunazal honen dokumentazio guztia jatorrizkoa edo kopia konpultsatua izango da. Onartuko da sutentifikazioa egin dadin, sozietatearen ondorioetarako bakarrik baina, jatorrizko dokumentuak egiaztatuta eskaintzak aurkezteko ekitaldi eta toki berean.

Atzerriko enpresek, hala badagokio, aurreko dokumentuak gaztelaniara ofizialki itzulita aurkeztuko dituzte.

"B" GUTUNAZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZINEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

(Batzuetan, kontratuaren berariazko Karatularen arabera, B gutunazala irizpide automatikoei buruzkoa izan daiteke).

Lizitatzaileek eskaintza teknikoa aurkeztuko dute, eta gutunazal honetan ez dira inoiz sartu beharko eskaintza ekonomikoaren dokumentu garrantzitsuak, ezta formula bakoitzeko irizpide kuantifikagarriei buruzkoak ere. Horiek sartuz gero, eskaintza lizitaziotik kanpo geldituko da.

Gutunazal honetan sartuko dira Karatulan adierazitako esleipen irizpideen arabera eskaintza baloratzeko aukera ematen duten dokumentuak.

«C» GUTUNAZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA (FORMULA BIDEZ BALORATZEN DIREN ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA)

(Batzuetan, kontratuaren Karatularen arabera, posible izango da gutunazal hau ez egotea).

Eskaintza ekonomikoa bilduko du, **Eranskina**ri jarraituz**.**

Lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatutako proposamen bakarra aurkeztuko da (aldi baterako enpresa-elkarte batek lizitatzen badu, ABEE horretako enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute).

- Eskaintza ekonomikoak partida independente gisa adieraziko du ordaindu beharreko BEZa.
- Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoak ezingo du gainditu kontratuaren hasierako aurrekontua.
- Ondorio guztietarako, ulertuko da eskainitako prezioan kontzeptu guztiak sartzen direla, edozein esparru fiskaleko gastu, tasa eta arielak eta kontratistaren onura industriala barne, BEZa IZAN EZIK, partida independente gisa ordianduko baita.

Ez dira onartuko proposamen hauek:

- Kontraesanak, omisioak, akatsak edo ezabaketak izatea zeintzuek galerazten duten argi jakitea eskaintza baloratzeko Administrazioak funtsezkotzat jotzen dituen elementuak.
- Aztertu eta onartutako dokumentazioko datuak gainditzen dituztenak.
- Lizitazioaren gehieneko tasa gainditzen dutenak.
- Proposamenaren zenbatekoan akats nabarmen bat dutenak.
- Plegu honen eranskinean ageri den proposamen eredua funtsean aldatzen dutenak.
- Lizitatzaileak akats edo funtsgabetasunen bat duela onartzen duenak, bideraezinaak bihurtzen dituztenak.

Desadostasunik egon ezkero letraz adierazitako eskaintzaren eta zenbakiz adierazitako eskaintzaren artean, letraz adierazten den zenbatekoa nagusituko da (salbu kopuru hori bakarrik lizitazio-tasa baino handiagoa bada), salbu eta, dokumentazioa aztertzeko irizpide arrazionalak erabiliz, kontratazio-mahaiak beste jarrera bat hartzen badu.

Eskaintza ekonomikoan kontu-akatsik bada, zuzendu egingo da.

Eskaintzak baztertzea ez dakarten kontraesan edo akatsen kasuan, Kontratazio-mahaiak irizpide arrazionalen araberako jarrera hartuko du, administrazioarentzat onuragarriena dena.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du aurkeztu proposamen bat baino gehiago, baina, Karatulan baimentzen bada, onartzen diren aldaera guztiak izan ditzake, eta ondorioz, eskaintza ekonomikoak ere izan ditzake.

14. DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENARI BURUZKO OHAR ARGIGARRIAK :

PAPEREAN ETA EUSKARRI INFORMATIKOAN EGINDAKO ESKAINTZEN ARTEAN kontraesanik egon ezkero, paperean jasotakoa nagusituko da, salbu eta, dokumentazioa aztertzearen ondoriozko irizpide arrazionalak erabiliz, Kontratazio-mahaiak beste jarrera bat hartzen badu.

KONFIDENTZIALTASUNA

Lizitatzaileek konfidentziala irizten badiote aurkezten duten dokumenturen bati, izendapen esplizitua egin behar dute —A gutunazalean aurkeztu beharreko erantzukizunpeko adierazpena betez—, eta argi eta garbi adierazi behar dute hori, gaininprimatuta edo orriaren marjinan, konfidentzialtzat izendatutako dokumentuan bertan. Izendapena horrela egiten ez bada, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.

Eskaintza ekonomikoa inolaz ere ez da izango konfidentziala. Eskaintza ekonomikoa konfidentzialtzat izendatzen bada, izendapen hori ez egindakotzat joko da.

Konfidentzialtasun-deklarazioa ezingo da zabaldu lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazio osora, ez eta eskaintza teknikoaren egiaztagiri guztietara ere. Kasu horretan, edo adierazpen hori behar bezala dimentsionatzen ez bada, kontratazio-organoak erabakiko du, arrazoiak emanda, zer datu eta/edo dokumentu diren konfidentzialak. Berdin arituko da kontratazio-organoa ere, baldin eta deklarazioak ez badu jasotzen lizitatzaileak konfidentzialtzat jo duen informazioa emateko arrazoi egoki eta aski oinarriturik.

Lizitatzaileak ez badu espresuki konfidentizaltzat jo ezein datu edo/eta dokumentuk, ulertuko da aurkeztutako datu eta/edo dokumentuetako bat ere ez dela konfidentziala. Hala ere, salbuespen gisa eta arrazoiak emanda, kontratazio-organoak konfidentzialtzat jo dezake hala deklaratu ez den informazioa, enpresaren bidezko interesak babesteko.

Halaber, behin eskaintzak aurkeztu ondoren, ezingo da konfidentzialtzat jo aurkeztuak izan direnean hala izendatu ez diren datuak.

Esleipen-prozeduran aurkezten badira hasierako eskaintzakoak ez ziren dokumentuak, dokumentu berri horiek osatzen dituzten datuak edo dokumentuak konfidentzialtzat jo ahal izango dira klausula honetako aurreko paragrafoetan azaldutako baldintzetan.

DOKUMENTAZIOAREN EGIAZKOTASUNA.

Administrazioak egiaztatu ahal izango du, bai esleipena egin aurretik eta bai kontratua gauzatu ondoren ere, gutunazaletako dokumentuen egiazkotasuna, bai eta karatulan esleipen-irizpidetzat jasotako dokumentuen egiazkotasuna ere. Ulertu behar da enpresak aurkeztutako datu eta inguruabarrak faltsuak izateak kontratua baliogabetu daitekeela, hala badagokio kontratistari lepora dakiokeen urraketagatik, jarritako bermea gakduta edo, balegokio, bermearen pareko kalteordaina ordainduta, eta Administrazioari ordainduz gainera egin zaizkion kalteen ordaina, inkautatutako bermeaz gaineko zenbatekoan.

DOKUMENTAZIOA ITZULTZEA/SUNTSITZEA

Errekurtsoak aurkezteko epea inork aurkeztu gabe bukatzen bada, proposamenekin batera doan dokumentazioa interesdunen eskura egonen da.

Esleipendun izan ez diren lizitatzaileek beren dokumentazioa berreskuratu nahi badute eskaera bat egin beharko diote Udalari, zehaztuz espediente-zenbakia eta dokumentuak

jasotzera joango den pertsona fisikoa, eta administrazio-bulegoetara joan beharko dute dokumentuak jasotzera.

Hala ere, esleipena jakinarazten den egunetik hiru hilabeteko epea iragan ondoan, Administrazioak posible du suntsitzea lizitatzaileak aurkeztutako dokumentuak, baldin ez baditu erretiratu.

15. Baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztea esleipen-proposamenaren aurretik.

Mahaiak uste badu arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruz, edo beharrezkoa dela prozedura behar bezala garatzeko, Kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena onartu baino lehenagoko edozein unetan izango da posible lizitatzaileei eskatzea aurkeztu ditzatela legez eta kontratazio Plegu honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten dokumentuak.

Kasu horretan, eskari hori egin zaien lehiatzaileek hamar egun balioduneko epea izango dute eskatutako dokumentazioa aurkezteko. Aurkeztutako dokumentazioan akats edo omisio zuzengarriak egon ezkero, gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango da akatsak zuzentzeko.

Epe horretan behar den dokumentazioa aurkezten ez bada, lizitatzailea prozeduratik kanpo geratuko da.

16. Enpresa lizitatzailearen ondorengotza prozeduran.

Baldin prozedura bat izapidetzen den bitartean eta kontratua formalizatu baino lehen enpresa-ondare edo jardueraren adar bat fusionatzen, zatitzen edo eskualdatzen bada, enpresa lizitatzailearen edo prozeduran bere posizioan dagoen hautagaiaren lekua hartuko du sozietate xurgatzaileak, bat-egitearen ondorioz sortutakoak, edo zatiketaren onuradun edo enpresa-ondarearen edo dagokion jarduera-adarraren eskuratzailea denak, baldin betetzen baditu kontratazeko gaitasun eta debekurik ezako baldintzak, eta egiaztatzen badu bere kaudimena eta sailkapena, prozesuan parte hartzeko administrazio-klausulen Pleguan eskatu bezala.

III. PROPOSAMENAK IREKI ETA KONTRATAZIO-MAHAIAREN JARDUNA.

17.- Kontratazio-mahaia.

Eskaintzak baloratzeko organo eskuduna Kontratazio-mahaia da, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera eratua. Mahaiburuak eta gutxienez hiru mahaikidek eta idazkariak osatuko dute.

Kontratazio-mahaiaren funtzionamenduaren araubidea Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoa da.

18.- Kontratazio-mahaiaren jarduna.

18.1 **«A» GUTUNAZALA IREKI.**

Kontratazio-mahaiak «A» gutunazalaren edukia aztertuko du eta lizitatzaileek garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu.

Kontratazio-mahaiak akats edo omisio konpongarririk ikusten badu aurkeztutako dokumentazioan, interesdunei jakinaraziko die ahoz, posta elektronikoz edo faxez, eta kontratatzailearen profilaren bidez jakinaraziko du. Gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango zaie lizitatzaileei akatsak zuzentzeko Kontratazio-mahaiaren aurrean, salbu eta Karatulan berariaz adierazi bada dokumentazioa aurkeztu eza ez dela akats konpongarria.

Aurrekoa gorabehera, lizitatzaile baten dokumentazioak akats nabarmenak edo konpondu ezin diren akats materialak baditu, ez da lizitazioan onartuko.

18.2. **«B» GUTUNAZALA IREKI.**

Behin dokumentazioa kalifikatu ondoren eta, akatsik edo hutsegiterik balego, horiek zuzendu ondoren, Kontratazio-mahaiak ekitaldi publikoan irekiko du B gutunazala – FORMULEN BIDEZ BALORATZEN EZ DIREN IRIZPIDEAK. Ondoren, Kontratazio-mahaiak, egoki baderitzo, gutunazal hori kasuan kasuko zerbitzu teknikoetara igortzea erabakiko du, proposamenak aztertu eta txostena egin dezaten, formula bidez baloratu ezin diren esleipen irizpideei dagokienez.

Halaber, proposamenak baloratzeko, eta bere proposamena egin aurretik, posible du eskatzea egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak.

"C" gutunazala irekitzeko ekitaldiaren hasieran balorazio-txostenaren berri emango da.

18.3. **«C» GUTUNAZALA IREKI.**

Jendaurreko ekitaldian "C" gutunazala irekiko da, -PROPOSAMEN EKONOMIKOA (FORMULA BIDEZ BALORATZEN DIREN ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK). Ondoren, Kontratazio-mahaiak, egoki baderitzo, gutunazal hori kasuan kasuko zerbitzu teknikoetara igortzea erabakiko du, aztertu eta txostena egin dezaten.

19. Ohiz kanpoko edo neurriz kanpoko balioak dituzten eskaintzak.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak SPKLren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko dira, eta Plegu honen karatulan jaso beharko dira parametro objektiboak, jakiteko zein diren balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak.

Eskaintzak nolakoak diren ikusita, entzunaldia emateko epea emango da, gehienez ere bost (5) egun balioduneko.

Prozeduran dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Nolanahi ere, eskaintzak baztertu egingo dira baldin eta egiaztatzen badute azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutela edo ez dituztela betetzen ingurumen, gizarte edo lan arloan Estatuan edo nazioartean aplikagarri diren betebeharrak, indarrean

dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Nolanahi ere, ulertuko da justifikazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitatzaileak proposatutako prezio edo kostuen maila baxua, eskaintza osoa ez denean edo ikuspuntu tekniko, juridiko edo ekonomikotik ezegokiak diren hipotesi edo praktiketan oinarrituta dagoenean.

20. Berdinketa hausteko irizpideak.

Proposamen bat baino gehiago berdin onuragarriak badira (puntuazio berdina dutenean bi dezimaletaraino), berdinketa hausteko irizpide hauek aplikatuko dira:

1. Araudiak ezarritakoa baino ezgaitasun handiagoa duten langileen ehuneko handiagoa.
2. Plantillan ezgaitasuna duten langile finkoen ehuneko handiagoa.
3. Laneratzeko enpresen erregimena arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako laneratze-enpresen proposamenak.
4. Nortasun juridikoa duten irabazi asmorik gabeko entitateek aurkeztutako proposamenak, baldin eta haien helburuak edo jarduerak lotura zuzena badu kontratuaren xedearekin (soilik gizarte edo laguntza arloko prestazioen kontratuen kasuan).
5. Bidezko merkataritzako erakunde gisa aitortutako erakundeen eskaintzak, bidezko merkataritzako aukera duten produktuak xede dituzten kontratuak esleitzeko.
6. Eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzeko gizarte eta lan arloko neurriak biltzen dituzten enpresek aurkeztutako proposamenak.

Berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dituzte lizitatzaileek berdinketa hausteko atal honetan aipatzen diren irizpideen egiaztagiriak, ez aldez aurretik.

Horretarako, kontratazio-mahaiak behar diren dokumentuak eskatuko dizkie ukitutako enpresei, eta gutxienez ere bost egun naturaleko epea emango die aurkezteko.

IV.- ESKAINTZEN SAILKAPENA, ESLEIPENA ETA KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

21. Eskaintzen sailkapena.

Kontratazio organoak kontratazio-mahaiak proposatutako eskaintzen sailkapena onartuko du.

22. Esleipenaren aurretik aurkeztu beharreko dokumentuak.

Puntuazio onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio aurkez ditzala ondoko dokumentuak errekerimendua igortzen zaion egunetik hasi eta 10 egun balioduneko epean:

1. Behin betiko bermea.- Udal diruzaintzan Administrazio kontratatzailearen aldeko behin betiko bermea jarri izanaren gordekina.

Zenbatekoa.- Plegu honen Karatulan finkatzen da (behin betiko bermea).
Bermea jartzeko moduak.- Bermea legean aurreikusitako edozein modutan jarri daiteke (**Eranskinetako** ereduen arabera)**.**
Administrazioak beretzat gordetzen du abalen sinadura legitimatzea eskatzeko eskubidea.
Enpresaburuen aldi baterako elkarteen kasuan, parte hartzen duten enpresen egoitza sozialak eta IFZ zenbakiak zehaztu beharko dira. Era berean, bermeak enpresa parte-hartzaile batek edo batzuek jarri ahal izango dituzte, baldin eta eskatzen den zenbatekora iristen badira eta aldi baterako elkartea osatzen duten guztiei modu solidarioan bermatzen bazaie.

2. Esleipenduna aldi baterako enpresaburuen elkarte bat bada, elkartearen eraketako eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Halaber, elkartutako kide bakoitzak Ogasun eta Gizarte Segurantzaren arloko ziurtagiri positiboa eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko dokumentazioa aurkeztuko ditu.
3. Hala badagokio, kontratua gauzatzeko erabiliko edo atxikiko diren edo kontratazio-organoak erreklamatuko dizkion bitartekoak benetan erabili direla frogatzen duten agiriak.
4. Kontratu erreserbatuak: kontratu erreserbatuaren kasuan, lizitatzaileak dokumentu bidez frogatu beharko du betetzen dituela erreserba horretako baldintzak.
5. Plegu honen 13. klausulan ezarritako agiriak.
6. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotearen aitorpena, **eranskineko ereduaren arabera.**
7. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituela frogatzen duen ziurtagiria:
    a. Foru Ogasunek eta/edo, hala badagokio, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako ziurtagiri positiboa egiaztatuz egunean dituela zerga-betebeharrak.
    3/2011 Legearen 15. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, interesdunak kontratazio-prozedura honetan parte hartzeko proposamena aurkezten badu, organo kudeatzaileari baimena emango zaio Administrazio honekin dituen zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko; beraz, kasu honetan ez da beharrezkoa izango esleipen-hartzaile izateko proposatutako enpresak aurkeztu dezan.
    Salbuespenen bat kontuan hartu behar bada, inguruabar hori erantzukizunpeko adierazpenaren bidez frogatu beharko da.
    b. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela edo, hala badagokio, dagokion mutualitatean alta emanda dagoela frogatzen duen ziurtagiri positiboa.
    Indarreko ekitaldiari dagokion alta edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria, eta, horren osagarri, zerga horren matrikulan baja eman ez dela dioen erantzukizuneko aitorpena. Zerga honetatik salbuetsirik egonez gero, erantzukizuneko aitorpena aurkeztuko du esanez ez dela bajan eman zerga horren matrikulan, eta salbuespenerako kasua adieraziko du.
8. Atzerriko enpresak: **eranskinean** aipatzen den dokumentazioa.
9. Zuzenketa. Aurkeztutako dokumentazioan akats edo omisio konpongarririk ikusten bada, interesdunari posta elektronikoaren bidez jakinaraziko zaio eta hiru egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko.
10. Ez betetzea.

Esandao epean errekerimendua behar bezala bete ezik, ulertuko da eskaintza erretiratu egin dela.

23. Esleipena.

Kontratazio organoak SPKLan aurreikusitako epean esleitu beharko du kontratua. Kontratazio organoak erabakiko du esleipena, ebazpen arrazoituaren bidez.

Jakinarazpena lizitatzaileei.- Esleipenaren ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, hala badagokio, Kontratazio-mahaiak egindako eskaintzak baloratzeko txostenarekin batera.

Jakinarazpena egiteko edozein bide erabiliko da, aukera ematen duen ber frogatzeko hartzaileak jaso duela egin zaion jakinarazpena. Ahal dela, baliabide elektronikoen bidez egingo da.

Esleipenaren publizitatea: esleipena eta eskaintzen balorazio txostena kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

24. Kontratua hobetzea.

Kontratua formalizatzen denean burutzen da.

Ulertuko da kontratazio organoaren egoitza dagoen tokian egin dela kontratua.

25. Kontratua formalizatzea.

Kontratua lizitazioaren baldintzei zehatz-mehatz egokitzen zaien administrazio dokumentu batean formalizatu beharko da, eta agiri hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak eska dezake kontratua eskritura publiko bihurtzeko, eta orduan bere kontura izango dira gastuak.

Kontratua formalizatzeko dokumentuan inolaz ere ezingo da sartu esleipenaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

26. Formalizatzeko epea.

Kontratua SPKLn aurreikusitako epean formalizatu beharko da.

Ezingo da kontratua gauzatzen hasi formalizatua izan aurretik, salbu espedientearen tramitazioa presakoa edo larrialdikoa denean.

27. Ez formalizatzearen ondorioak.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua legez ezarritako epeetan formalizatzea ezinezkoa bada, ondokoa egingo da:

- Oinarrizko lizitazio-aurrekontuaren (BEZ kanpo) %3ko zenbatekoa eskatuko da zigor gisa. Diru hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen aurka ordainduko

da, bermea jarri bada, SPKLaren 71.2. artikuluko b) letran ezarritakoaren kalte gabe.

- Kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, aldez aurretik errekerimendua eginda eta behin Plegu honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu eta gero.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egozten ahal bazaizkio, kalteordain bat ordainduko zaio kontratistari baldin atzerapenak ezelango kalte eta galerarik sortzen badio.

28. Aseguruak.

Esleipendunak ondoko aseguru poliza hauek kontratatu eta bere kontura mantenduko ditu kontratuaren iraupen eta bermealdian:

- Erantzukizun zibileko asegurua, alderdi orokor edo ustiapen, patronal eta amaitutako lanen asegurua, aseguratu gisa barne hartuz kontratista eta, hala badagokio, azpikontratista.
  Ustiapeneko erantzukizun zibilerako frankizia ez da izango 10.000 eurotik gorakoa, eta hau izango da ezbeharragatiko kalte-ordainaren gutxieneko muga:

LIZITAZIO PREZIOA (EUROTAN)	KALTE-ORDAINAREN GUTXIENEKO MUGA
1.000.000 €-raino	300.000 €
1.000.001 eta 3.000.000€ bitartean	600.000 €
3.000.001 eta 9.000.000€ bitartean	1.500.000 €
9.000.001 eta 25.000.000€ bitartean	3.000.000 €
25.000.001 eta 75.000.000€ bitartean	6.000.000 €
75.000.000€ baino gehiago	12.000.000 €

Nolanahi ere, esleipendunak ordaindu beharko ditu frankiziaren zenbatekoan eta aseguru-polizetan ezarritako mugak gainditzen dituzten kalte eta galerak, bai eta poliza horietan estaltzen ez diren ondasun eta arriskuak ere.

Kontratuaren bukaera aurreikusitako datatik atzeratzen bada, behar diren luzapenak kontratatuko dira, eta esleipendunak dagokion gainprima ordaindu beharko du.

II. ZATIA

KONTRATUEN ONDORIOAK, KUNPLITZE ETA AMAIERA

29. Lanen hasiera.

Lanak hasteko data ofiziala Hasiera Akta sinatzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta akta sinatzen ez bada, kontratua sinatzen den egunaren biharamunean.

Premiazkotzat jotako espedienteetan, exekuzio-epea administrazioak hasteko agindua idatziz ematen duenetik hasiko da kontatzen, eta, administrazioak egiten ez badu,

esleipenaren jakinarazpena jaso eta kontratistak behin betiko bermea eman ondorengo egunetik aurrera.

30. Kontratuaren arduraduna.

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du, eta pertsona horri dagokio kontratatutako zerbitzua nola gauzatzen den zuzentzea eta ikuskatzea. Horretarako, pertsona horrek gainbegiratu egingo du lana betetzen dela eta erabakiak hartu eta beharrezko jarraibideak emango ditu ziurtatzeko hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela. Kontratuaren arduradunak eta bere laguntzaileek sarbide osoa izango dute kontratatutako zerbitzua egiten den tokietara, kontratistak izendatutako pertsonak lagunduta.

31. Lan-programa.

Baldintza teknikoen Pleguan hala eskatzen bada, kontratistak lan-programa bat eman beharko dio kontratuaren arduradunari, dagokion klausulan zehaztutako datu eta informazioekin.

Lan-programa bat etorriko da Pleguetan eta, hala badagokio, eskaintzan ezarritako epeekin, eta obra zuzendaritzak onetsia izan beharko du.

32. Kontratua betetzea.

Kontratua kontratistaren arrisku eta benturan burutuko da, SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Itundutakoari dagokionez, hitzarmenari erantsitako agiriak edo Administrazioak onartutako jarraibide, plegu edo era guztietako arauak ez ezagutzeak ez du enpresa salbuetsiko horiek guztiak behar izatetik.

Kontratista arduratuko da egiten dituen lanen eta egiten dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaz, bai eta kontratuaren exekuzioan gertatzen diren hutsegiteek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio desegokiek Administrazioarentzat edo hirugarrenentzat dakartzaten ondorioez ere.

33. Ez-betetze partziala edo akastuna eta zigorrak (SPKLaren 192. art.).

Karatulan ezarritako berme-epea igaro arte, enpresa kontratistak ziurtatuko du kontratatutako lanak behar bezala egin direla eta bertan egon daitezkeen akatsak zuzendu egin direla, eta ez da obligazio horren salbuesgarri izango, ez inolako eskubiderik ez dio emango, lan horiek egin bitartean Administrazioaren ordezkaritzak aztertu edo onartu izanakedo egiaztapen, balorazio edo ziurtagiri partzialetan onartu izanak.

Enpresa kontratistak ez du erantzukizunik izango lan akastuna edo gaizki egindakoa Administrazioaren agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorioa denean.

Baldin kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ez baditu osorik betetzen kontratuan zehaztutako prestazioak, Administrazioak, kasuaren inguruabarrak kontuan

hartuta, eskua izango du kontratua suntsiarazteko edo Karatulan aurreikusitako zigorrak ezartzeko.
Karatulan beste zigorrik aurreikusten ez bada, honela zigortuko da kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzea:

- Arau orokor bezala, zigor bakoitzaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren %1 izango da, salbu eta, egoki arrazoituta, kontratazio-organoak ez-betetzea larria edo oso larria dela irizten badio. Kasu horretan, kontratuaren prezioaren %5 edo %10eko legezko gehienekora iritsi ahal izango dira, hurrenez hurren (BEZ gabe). Arau-haustea behin eta berriz egitea kontuan hartu ahal izango da larritasuna baloratzeko.
  Nolanahi ere, zigorraren zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren %10 baino handiagoa, BEZa gabe, eta zenbateko osoak ez du gaindituko kontratuaren prezioaren %50.
- Nolanahi ere, zigorrak ezartzeak ez du kontratista salbuetsiko akatsak konpontzeko legez dagokion betebeharretik.

34. Epea betetzea eta atzerapenagatiko zigorrak (SPKL, 193. art.).

Kontratista behartua dago kontratuan ezarritako epe osoaren barruan betetzera kontratua, bai eta kontratua betetzeko ezarritako epe partzialen barruan ere.

Kontratista berandutzan jausteko ez da behar izango administrazio honen aldez aurreko agindurik.

Kontratua betetzean atzerapen bat egon ezkero, bi kasu bereizi behar dira:

a) Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, guztizko epea edo epe partzialak betetzen berandutu bada, eta epe horiek betetzen berandutuz gero bidea badago pentsatzeko ezinezkoa dela guztizko epea betetzea, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo eguneko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioko 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euro (BEZ bark) , salbu eta Pleguko Karatulan bestelako zigorrik ezarri ez bada.
   Berandutzagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren %5eko multiplora iristen diren bakoitzean (BEZa kanpo), kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo zigor berriak ezarriz kontratua gauzatzen jarraitzeko. Azken kasu horretan, kontratazio-organoak kontratua amaitzeko beharrezkotzat jotzen duen bezainbat denbora luzatuko du epea.
   Isunak ordaintzeko, kontratistari ordaindu behar zaion kopuru osotik edo zati batetik kenduko da behar dena, edo, ordainketatik dirurirk kentzerik ez dagoenean, jarri den bermetik.
b) Zerbitzuak atzeratzen badira, eta atzerepena ezin bazaio egotzi kontratistari, eta kontratistak bere konpromisoak betetzea eskaintzen badu baldin luzatzen bazaio hasierako exekuzio-epea, kontratazio-organoak luzatu egingo dio epea, gutxienez galdutako denbora bezainbatean, kontratistak beste epe laburragoren bat eskatzen ez badu, SPKLren 195.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta 100. artikuluko baldintzak eta izapideak harturik arautzat. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du zehaztuz atzerapenaren arrazoia kontratistari egotzi dakiokeen ala ez.

Ez-betetze partziala edo akastuna gertatzen bada, edo exekuzioko atzerapenerako zigorrik aurreikusita ez badago, edo aurreikusita egon arren ez bada nahikoa estaltzeko Administrazioari eragindako kalteak, Administrazioak kalte-galeren ordaina eskatuko dio kontratistari.

35. Prezioa ordaintzea.

Kontratistak eskubidea du benetan gauzatzen dituen zerbitzuak kobratzeko hitzartutako prezioen arabera eta Administrazioak emandako jarraibideen arabera.

Kontratuaren ordainketa-erregimena plegu honen Karatulan ezarritakoa izango da, kontratuaren xede den prestazioa gauzatu ondoren, eta osorik edo partzialki egin ahal izango da konturako ordainketen bidez edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, hitzartutako mugaegun bakoitzean ordainduta.

Kontratistak emandako faktura elektronikoaren bidez egingo da ordainketa, hurrengo klausulan xedatutakoaren arabera.

Ordainketek konturako ordainketa izaera dute, azken ziurtagirian gertatzen diren zuzenketa eta aldaketen mende daude eta ez dute inola ere ekarriko kontratuaren onespena eta harrera egitea.

Administrazioak hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, emandako zerbitzuen kontratuan xedaturikoarekin bat datozela egiaztatzen duten dokumentuak onartu eta hurrengo egunetik hasita. Atzerapenik izanez gero, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalteordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, berankortasun-neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako eran.

Kontratistak, eskaria idatziz egin ondoren, kontratuaren hasieran eskubidea izango du konturako ordainketak jasotzeko, kontratuaren exekuzioa prestatzeko eragiketen zenbatekoan. Nolanahi ere, berme gisa abal bat edo legeak onartutako beste formula bat jartzea eskatuko zaio.

Bestalde, Administrazioaren aurrean kobratzeko eskubidea duten kontratistek eskubide hori zuzenbidearen arabera lagatu ahal izango dute, ezinbesteko baldintza izango delarik Administrazioari lagapen-erabakiaren jakinarazpen fede-emailea egitea.

Kobratzeko eskubidea sortzen duen harreman juridikoa hasi aurreko lagapenek ez dute ondoriorik izanen Administrazioaren aurrean. Nolanahi ere, Administrazioak lagapen-hartzailearen aurka egin ahal izango ditu kontratu-harremanetik eratorritako salbuespen kausal guztiak. (200. artikulua).

Kontratistak kreditu -agapena kontratatzen badu: espresuki debekatuta dago factoring eragiketak gauzatzea kontratu honen ondoriozko eragiketak finantzatzeko baliabiderik gabe.

36. Faktura elektronikoa.

Kontratistak formatu elektronikoa erabili beharko du fakturak Udalari luzatu eta bidaltzeko.

Kontratista batek ez badu fakturazio elektronikorako berezko sistemarik, Udalaren web orriaren bidez eskura daiteke faktura elektronikoa egiteko tresna, bai eta PDF-417 zehaztapenaren arabera sortutako autentifikazio marka grafikoak dituen dokumentu inprimatua eskuratzeko aukera ere, "facturae 3.2" formatu elektronikoan jaso dezan baiespedientea apartenitzen zaion administrazio-unitateak, bai espedientea osatzeko ardura duen funtzionarioak ere.

Kontratista batek fakturazio elektronikorako sistema propioa badu, nahitaezkoa izango da Zerga Agentziak erabiltzen duen "facturae 3.2" formatua erabiltzea.

Bi kasuetan, sinadura elektroniko aurreratu baten bidez sinatutako faktura elektronikoak bakarrik onartuko dira, sinadura sortzeko gailu seguru baten bidez sortutako ziurtagiri aitortuan oinarrituta.

37. Prezioen berrikuspena.

Hala badagokio, prezioak berrikusi egingo dira SPKLren 103. artikuluan ezarritakoaren arabera eta klausula-orri hauen karatulan aurreikusita egon ezkero.

Kontratuari aplikatu beharreko berrikuspen indizea edo formula Karatulan finkatuko da, aldaezina izango da kontratuak irauten duen bitartean, eta zehaztuko du noiz berrikusi prezioak kontratuaren formalizazio datarekiko data bakoitzean.

38. Lan eta gizarte betebeharrak.

Kontratista behartuta dago lan eta gizarte segurantza arloan indarrean dagoen araudia betetzera. Orobat bete beharko ditu: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bidez onartu zen ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta horiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzkoa; eta azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

Enpresa kontratista behartuta dago aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arau eta baldintzak betetzera kontratua gauzatzeko epe osoan; halere, kasu guztietan esleipenduna behartuta dago langileen soldata baldintzak betetzera, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera. (SPKL, 122.2 art.).

Lehenengo paragrafoan esandako betebeharrak ez betetzeak eta, bereziki, soldatak behin eta berriz ez ordaintzeak edo berandu ordaintzeak edo hitzarmen kolektiboetan onartutako baino soldata apalagoak aplikatzeak, erabaki larria eta dolosoa denean, 192. artikuluan aipatzen diren zigorrak ezartzea ekarriko du (SPKLren 201. artikulua).

Esleipendunaren gain baizik ez da joango kontratazioaren xede den zerbitzua emateko erabiltzen dituen langileen ordainsaria. Bere kontura izango dira gizarte eta/edo lan-kostuak, indarrean dagoen legeria eta dagozkion hitzarmenak betez, eta Udalak ez du inolako erantzukizunik izango kontratistaren eta bere langileen arteko harremanetan.

39. Baliabide materialak eta pertsonalak.

Kontratuan adostutako epeetan obra behar bezala gauzatzeko, kontratista behartua dago jartzera eta mantentzera beharrezkoak diren ekipo eta baliabide osagarriak, bereziki kontratua gauzatzeko ardura duten pertsonen zerrendan sartu direnak.

Enpresako langileak enpresa kontratistaren menpe baino ez dira egongo, eta bakarrik enpresa horrek izango ditu enplegatzaile izateak dakartzan eskubide eta betebeharrak.

Administrazioak eskua du baztertzeko desegokitzat jotzen duen edozein elementu, eta enpresak eskubidea izango du ebazpen horren aurka erreklamazioa egiteko Administrazioaren aurrean, Administrazioak idatziz jakinarazten dionetik hasi eta hamar egun naturaleko epean.

40. Exekuzio-baldintza bereziak.

1. Langabeziak bereziki kaltetutako kolektiboen enplegua sustatzeko baldintzak.
    a. Kontratua gauzatzeko behar diren langileen kontratazio berrietan, enpresa kontratistek lehentasuna emango diete langabeziako legezko egoeran dauden pertsonei, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren 208. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (Errege Dekretu horren bidez onartu zen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bategina). Hala, egin beharreko lanaren ezaugarrien kariaz ezinezkoa dela justifikatzen ez bada, kontratazio berri horiek gutxienez %15ekoak izango dira.
    Kontratistak egiaztatu egin beharko ditu kontratuaren exekuzio esparruan egiten diren langile-kontratazio berriak, bai eta langabeziak bereziki kaltetutako kolektiboetako pertsonei dagozkienak ere, horretarako behar den dokumentazioa aurkeztuz: izena, abizenak, ENA eta Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
    Kontratuaren esleipenak langileen subrogazioa ekartzen badu, eta kontratu berriak kontratazio berrien beharrik ez badakar, kontratatzeko obligazio hori salbuetsi egin daiteke.
    Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, edo klausulan aurreikusitako langabezia-egoeran dauden pertsonak kontratatzeko betebeharra betetzen ez bada, ulertuko da kontratua ez dela bete, eta, ondorioz, kontratuaren aurrekontuaren %10erainoko zigorra ezarriko da.
    b. Ahal den guztietan, baldin kontuan harturik lortu beharreko prestazioen ezaugarriak enpresa esleipendunak kontratuaren zati bat egiteko azpikontratazioa egin behar badu, ahal dela abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuan jasotako Enplegu Zentro Berezien Erregistroan inskribatutako entitateekin egingo du, edo Gizarteratze Enpresen Erregistroan, abenduaren 13ko 44/2007 Legean (Gizarteratze Arriskuari buruzko Legea) xedatutakoa betetzeko.
2. Berme sozialeko baldintzak.

Lan-betebeharrak betetzeko baldintzak.

Enpresa kontratista behartuta dago lan-arloan, gizarte-segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak betetzera, eta, bereziki, egin beharreko prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren mende

daudenean, kontratista behartuta dago dagokion lan-ordenantzaren eta hitzarmen kolektiboaren xedapenak betetzera.

Enpresa kontratista behartuta dago aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arau eta baldintzak betetzera kontratua gauzatzeko epe osoan; nolanahi ere, esleipenduna behartuta dago langileen soldata-baldintzak betetzera, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera. (122.2 art.)

Enpresa esleipendunak erantzukizunpeko adierazpenen bidez edo, hala badagokio, erakunde eskudunen ziurtagirien bidez egiaztatu behar du kontratua gauzatzean bete direla lanpostuak babesteari, lan-baldintzei eta laneko arriskuen prebentzioari buruz indarrean dauden xedapenen ondoriozko betebeharrak.

Obligazio hori ez betetzea kontratuaren ez-betetzetzat hartuko da, eta horrek kontratuaren aurrekontuaren %10erainoko zigorra ekarriko du.

Gutxieneko lan baldintzei eta subrogazioari buruzko baldintzak (130. artikulua).

Lege-arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek esleipendunari lan-harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen badio, lizitatzaileei informazioa emango zaie subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruz. Informazio hori beharrezkoa izango da neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza egin ahal izateko. Informazio hori SPKLren 130. artikuluan eta 2016. artikuluan aurreikusitakoa betez emango da.

SPKLren 130. artikuluan eta Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 6.1 artikuluan aurreikusitakoa betez, Karatulan jasota dago, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko, lege-arau, hitzarmen kolektibo edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio bidez subrogatzeko betebeharrari buruzko informazioa.

Kontratu honen esleipendun gertatzen den enpresak, ukitutako langileak enplegatzen baditu, arestian aipatutako informazioa eman beharko du, kontratuaren arduradunak eskatuta. Informazioaren zati gisa, subrogatu beharreko langileen zerrendak aurkeztu behar dira, puntu hauek adierazita: aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa eta kategoriaren xehetasunak, kontratu-mota, lanaldia, antzinatasun-data, kontratuaren mugaeguna, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, eta subrogazioak eragiten dien langileei aplikatu beharreko hitzarmen guztiak.

Subrogazioa egin ondoren, lan-kostuak handiagoak badira kontratista zaharrak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino, kontratistak ekintza zuzena izango du kontratista zaharraren aurka.

Era berean, eta urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe, kontratista behartuta dago subrogazioak eragindako langileei ordaindu ez zaizkien soldaten erantzule izatera, bai eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioen erantzule izatera ere, are kontratua suntsiarazi eta kontratista berriak langileak subrogatzen baditu ere. Kasu horretan, Administrazioak, soldata horiek

ez ordaindu gabe daudela egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion zenbatekoak atxikiko ditu bermatzeko ordainduko dituela soldata horiek, eta behin betiko bermea ez du itzuliko, soldatak ordaindu dituela egiaztatzen ez den bitartean.

Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du kontratua gauzatzen den bitartean Udalak eskatzen duen informazio guztia emateko kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan baldintzei buruz.

Betebehar horiek arau-hauste arin gisa urratu ezkero, kontratuaren aurrekontuaren %10erainoko zigorra ezarriko da.

Arau-hauste larritzat kalifikatutako ez-betetzeak kontratua suntsitzea eta kontratatzeko debekua adieraztea ekarriko du.

Azpikontratazioari buruzko baldintzak.

Azpikontratazioa eginez gero, kontratista nagusiak bere gain hartzen du kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean, administrazio-klausula partikularren Pleguei eta kontratuaren baldintzei hertsiki jarraiki, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

Obligazio hori bete ezik eta jokabide hori arau-hauste arintzat jotzen bada, kontratuaren aurrekontuaren %10erainoko zigorra ezarriko da.

Arau-hauste larritzat kalifikatutako ez-betetzeak kontratua suntsitzea eta kontratatzeko debekua adieraztea ekarriko du.

Lan harreman indibidual eta kolektiboei buruzko araudia betetzeko baldintzak.

Arlo horretan eskumena duen agintaritzak enpresa kontratistari zigor irmoa jartzea administrazio-bidean, abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 6. edo 7. artikuluetan tipifikatuta dauden lan-harremanen arloko arau-hausteak egiteagatik, Kontratua ez-betetzetzat hartuko da, eta kontratuaren aurrekontuaren %5erainoko zigorra ezarriko da zehapena arau-hauste arinagatik ezartzen bada (6. artikulua), edo% 10erainokoa arau-hauste larriagatik ezartzen bada (7. artikulua).

Kontratua gauzatzean LISOSaren 8. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso larri bat egiteagatik kondena jartzen bada, ulertuko da ez dela bete kontratuaren funtsezko baldintza bat, eta kontratistak kontratua suntsiaraziko du, zehapena administrazio-bidean irmoa denean.

Era berean, kontratista behartuta dago kontratuaren arduradunari garaiz jakinaraztera kontratua gauzatzerakoan laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezartzen zaion edozein zehapen, bai eta kontratuaren aurka jar litezkeen errekurtsoak eta horiei buruzko ebazpenak. Informatzeko obligazio hori betetzen ez bada, ulertuko da ez dela bete kontratuaren funtsezko baldintza bat, eta zehapena irmo bihurtzen denean, kontratua suntsitzeko arrazoia izango da.

Lan ariskuen prebentzioko araudia betetzeko baldintzak.

Arlo horretan eskumena duen agintaritzak enpresa kontratistari zigor irmoa jartzea administrazio-bidean, abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 11. edo 12. artikuluetan tipifikatuta dauden lan-arriskuen prebentzio arloko arau-hausteak egiteagatik, kontratua ez-betetzetzat hartuko da, eta kontratuaren aurrekontuaren %5erainoko zigorra ezarriko da zehapena arau-hauste arinagatik ezartzen bada (11. artikulua), edo% 10erainokoa arau-hauste larriagatik ezartzen bada (12. artikulua).

Kontratua gauzatzean LISOSaren 13. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso larri bat egiteagatik kondena jartzen bada, ulertuko da ez dela bete kontratuaren funtsezko baldintza bat, eta kontratistak kontratua suntsiaraziko du, zehapena administrazio-bidean irmoa denean.

Era berean, kontratista behartuta dago kontratuaren arduradunari garaiz jakinaraztera kontratua gauzatzerakoan laneko arriskuen prebentzio arloan ezartzen zaion edozein zehapen, bai eta kontratuaren aurka jar litezkeen errekurtsoak eta horiei buruzko ebazpenak. Informatzeko obligazio hori betetzen ez bada, ulertuko da ez dela bete kontratuaren funtsezko baldintza bat, eta zehapena irmo bihurtzen denean, kontratua suntsitzeko arrazoia izango da.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintzak.

Kontratistak bermatuko du kontratua gauzatzean dokumentazioa, publizitatea, irudia edo materialak sexismorik gabe erabiliko direla, emakumeen edo estereotipo sexisten irudi diskriminatzaile oro saihestuko dela, eta irudi bat sustatuko dela berdintasun, presentzia orekatu, aniztasun, erantzunkidetasun eta genero-rolen eta -identitateen aniztasunarekin.

Kontratistak bete egin beharko ditu Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak.
250 langile baino gehiago dituen enpresa kontratistak justifikatu egin beharko du baduela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako edukia duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana.

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du tratuan, lana eskuratzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, iraupenean, prestakuntzan, iraungipenean, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan.

Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar badira eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan emakumeen ordezkaritza desorekatua badu, kontratua gauzatzeko eta kontratua gauzatu bitartean, lehentasuna eman beharko dio emakumeak kontratatzeari. Plantilla desorekatutzat joko da emakumeak plantilla osoaren %50 baino gutxiago badira.

4. Azpikontratistei ordainketak egiteko baldintzak. (217. art.)

Kontratistak bete egin beharko ditu kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei dagozkien ordainketa-epeak, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan ezarritakoak.

Kontratistak kontratuaren arduradunari bidali beharko dio, hark hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura badute.

Era berean, Udalak eskatuta, prestazioa amaitu ondoren ordainketa horiek bete izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, SPKLren 216. artikuluan eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean legez ezarritako ordainketa-epeen barruan.

Exekuzio baldintza berezi hori betetzen ez bada, Karatulan ezarritako zigorrak ezarriko dira.

41. Kontratua aldatzea.

1. Behin kontratua burututa, interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da hala aurreikusita dagoenean edo, aurreikusi gabe badago, legean aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean. Hau da:
   a. Aurreikusitako aldaketak: (204. artikulua).
      Indarrean dagoen bitartean, posible izango da kontratua aldatzea baldin Karatulan aukera hori aurreikusita badago eta argi, zehatz eta zalantzarik gabe zehaztu badira zein baldintzatan egin daitekeen hori, bai eta noraino, zein mugatan eta nola; zein baldintzatan egin ahal iznago diren aldaketak, modu objektiboan egiazta daitezkeen inguruabarrak direla kausa. Aldaketak ez du ekarriko kontratuan aurreikusi gabeko unitateko prezio berriak ezartzea.
      Nolanahi ere, kontratua ezingo da aldatu hasierako prezioaren %20 baino gehiago.
   b. Aurreikusi gabeko aldaketak (205. artikulua).
      Kontratuak bakarrik aldatu ahal izango dira SPKLaren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta baldintzekin.
2. Kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat.
   Kontratazio-organoak aurreikusi gabeko aldaketak ezinbestekoak izango dira kontratistentzat baldin eta aldaketa horiek, bakarka edo batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren %20, BEZa gabe, gainditzen ez badute. SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu behar dira.
3. Aldaketa bat egiteko jarraitu beharreko prozedura.
   a. Kontratuaren arduradunaren txostena, non zehaztuko diren aldaketa eskatzen duten interes publikoko arrazoiak, haren irismen kualitatibo eta kuantitatiboa, inguruabarrak eta inguruabar horiek benetan gertatzen direlako egiaztapen objektiboa.
   b. Bost (5) egun balioduneko entzunaldia kontratistari.

c. Hala badagokio, proiektuaren edo zehaztapen teknikoen egileari entzutea, kontratazio-organotik kanpoko hirugarren batek prestatu baditu hiru (3) egun balioduneko epean.
d. Txosten juridikoa.
e. Fiskalizazio ekonomikoaren txostena.
f. Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.
g. Aldaketaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea.
h. Aldaketaren iragarkia EBAOn argitaratzea, baldin eta kontratua erregulazio harmonizatuaren mende badago (zerbitzua SPKLren IV. eranskinean jasotakoetako bat denean izan ezik), eta aldaketa SPKLaren 205.2 artikuluko a) eta b) idatz-zatietako bat bada.

4. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 309. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, prezioa egikaritze-unitateen bidez zehazten den kasuetan, ez dira aldaketatzat hartuko prestazioa behar bezala gauzatzen den bitartean kontratuan aurreikusitako unitateen aldean benetan gauzatutako unitateen kopuruan gertatzen den aldaketa. Unitate horiek likidazioan jaso ahal izango dira, baldin eta gastua ez bada handitzen kontratuaren prezioaren %10 baino gehiago.

42. Kontratua etetea. (208. art.)

Administrazioak, interes publikoko arrazoiak direla-eta, kontratuaren exekuzioa etetea erabaki dezake. Era berean, bidezkoa izango da kontratua etetea, SPKLren 198.5 artikuluan adierazitako inguruabarra gertatzen bada. Kontratua eteteko, SPKLren 208. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, bai eta APKLEOrekin bat datozen aginduei ere.

SPKLren 208. artikuluari jarraiki, Administrazioak kontratua etetea erabakitzen badu edo kontratua SPKLren 198.5 artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz eteten bada, Administrazioak kontratistari ordainduko dizkio hark benetan jasandako kalte-galerak, 208. artikuluan ezarritako arauei jarraiki.

43. Kontratuen lagapena.

1. Esleipendunak kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira, SPKLren 214.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira, eta lagapenaren ondorioz merkatuan lehia murrizten ez bada.

Ez da baimenduko hirugarren bati lagapenik egitea, horrek kontratistaren ezaugarriak nabarmen aldatzea badakar eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.

2. Kontratua lagatzeko baldintzak hauek dira:

a) Kontratazio-organoak lagapena aldez aurretik eta berariaz baimentzea.
b) Lagatzaileak gutxienez kontratuaren zenbatekoaren %20 gauzatua izatea. Baldintza hori ez da aplikatuko baldin lagapena gertatzen bada eta kontratista konkurtsoan badago likidazio-fasea irekita egon arren, edo konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaitegiari jakinarazi badio birfinantzaketa-akordioa

lortzeko negoziazioak hasi dituela, edo hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikimenduak lortzeko, konkurtso-legerian aurreikusitako moduan.

c) Lagapen-hartzaileak administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna izatea eta kontratuaren exekuzio-fasearen arabera eska dakiokeen kaudimena izatea --behar bezala sailkatuta egon beharko du baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio--, eta kontratatzeko debekurik ez izatea.
d) Lagapena eskritura publikoan formalizatzea esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen artean.

3. Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

4. Hauxe izango da kontratua lagatzeko prozedura:

a) Kontratistak kontratuaren arduradunari dokumentu bat bidaliko dio eskatuz baimendu dakiola lagapena. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:
   a. Kontratua lagatzeko aukera ematen duen egoeraren egiaztagiria.
   b. Lagapen-hartzaileak SPKLaren 214.2 artikuluko c) letrako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.
b) Kontratuaren arduradunak emandako txostena, non adieraziko baita kontratuaren zenbatekoaren %20 gutxienez bete behar den ala ez eta, hala bada, baldintza hori betetzen ote den. Halaber, SPKLaren 214. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren paragrafoan jasotako mugak errespetatzen direla adierazi beharko da.
c) Txosten juridikoa.
d) Fiskalizazio ekonomikoaren txostena.
e) Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratistari lagapena eta jakinarazpena egiteko baimena ematen duena.
f) Kontratatzailearen profilean lagapena baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea.
g) Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.
h) Lagapen-hartzaileak bermea gordailatzea Udalaren Diruzaintzan. Ez da lagatzaileak emandako bermea itzuli edo kitatuko harik eta lagapen-hartzailearena formalki eratu arte.

44 Azpikontratazioa. (215. artikulua)

1. Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, pleguetan xedatutakoaren arabera, salbu eta 214.2 artikuluko d) eta e) letretan ezarritakoarekin bat etorriz, Karatulan, eta espedientean horrela justifikatzen bada, prestazioa edo haren zati bat kontratistak zuzenean egin behar duela xedatzen denean.
2. Azpikontratazioak egiteko, baldintza hauek bete beharko dira:
   a. Espedientearen Karatulan edo agirietan hala eskatzen bada, lizitatzaileek beren eskaintzan adierazi beharko dute azpikontratatzeko asmoa duten kontratuaren zatia, zenbatekoa eta azpikontratazioa egin behar zaien azpikontratisten izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua.
   Kasu horretan, azpikontratazioak ez badatoz bat eskaintzan adierazitakoarekin, ezin izango dira egin hurrengo paragrafoan aipatutako justifikazioak jakinarazi eta aurkeztu eta hogei egun igaro arte,

Administrazioak aldez aurretik berariazko baimena eman ezik edo justifikatutako larrialdi-egoera izan ezik, salbu eta Administrazioak epe horretan aurkakotasuna jakinarazten badu.

c) Nolanahi ere, kontratistak , kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua esleitu ondoren, eta, beranduenez, kontratua gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko daukan asmoa, zehazutz azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia eta azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta azpikontratistaren ordezkaria edo legezko ordezkariak, eta behar bezala justifikatuko du azpikontratistak kontratua gauzatzeko duen gaitasuna, kontuan harturik dituen elementu teknikoak eta langileak eta esperientzia.

Halaber, egin nahi den azpikontratuaren berri Administrazioari emateko idazkiarekin batera, kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLren 71. artikuluari jarraiki. Egiaztapen hori azpikontratistaren erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egin daiteke.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari kontratu nagusia gauzatzen den bitartean informazio hori ezertan aldatzen bada, eta azpikontratista berriei buruzko informazio guztia.

3. Baldintza horiek betetzen ez badira, edo egiaztatzen ez badira azpikontratistaren gaitasuna edo larrialdi-egoera edo azpikontratazioa presakoa egiten duten inguruabarrak, ondorioa hauetako bat izango da, SPKLn aurreikusten diren beste batzuen artean eta kontratua gauzatzean duen eraginaren arabera:
   a. Azpikontratazioaren zenbatekoaren %50erainoko zigorra ezartzea kontratistari.
   b. Kontratua suntsiaraztea, baldin eta SPKLren 211. artikuluko 1. idatz-zatiko f) letran ezarritako baldintzak betetzen badira.

4. Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean baino ez dira behartuko, eta hark bere gain hartuko du, beraz, kontratua betetzearen erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean.

5. Kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan arloko legeriaren arabera.

6. Azpikontratistek ez dute zuzeneko ekintzarik izango administrazio kontratatzailearen aurrean, kontratu nagusia eta azpikontratazioak gauzatzearen ondorioz kontratistarekin hartutako betebeharrengatik.

Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzea (216. art.)

Kontratista behartuta dago azpikontratistei edo hornitzaileei adostutako prezioa ordaintzera, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epeetan eta baldintzetan.

Berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat, Karatulak hala xedatzen badu, azpikontratistei zuzeneko ordainketak egiteko aukera aurreikus daiteke.

45. Kontratua betetzea.

KOntratua betetzat joko da kontratistak, kontratuan ezarritako baldintzen arabera eta Administrazioak nahi bezala, prestazio osoa egiten duenean.

Harrera.

Hori egiaztatzeko, administrazioak harrera edo adostasun egintza formal eta positiboa egin behar du (harrera-akta), kontratuaren xedea entregatu edo egin eta hurrengo hilabetearen barruan, plegu honen karatulan besterik zehaztu ez bada.

Iritziko balitz egindako lana ez datorrela bat kontratatutako prestazioarekin, idatziz eman beharko zaizkio enpresari aurkitutako akatsak konpontzeko jarraibideak. Idazki horretan zehaztuko da zuzenketa egiteko epea.

Enpresa kontratistak oharrei buruzko erreklamaziorik aurkezten badu, kontratazio-organoak ebatziko du.

Enpresak oharrei buruzko idatzizko erreklamaziorik aurkezten ez badu, ulertuko da horiekin ados dagoela, eta ikusitako akatsak zuzendu edo konpondu beharko ditu.

Ez da biderik egongo harrerarik egiteko harik eta jarraibideak bete arte, eta orduan dagokion akta jasoko da.

Akatsak zuzentzeko epean zuzenketa hori egiten ez bada, Administrazioak uko egingo dio harrera egiteari, eta ordaintzetik salbuetsita geratuko da edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Nolanahi ere, baldin Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, kontratazio-organoak uko egin diezaioke harrerari eta ordaintzetik salbuetsita geratuko da, edo, hala badagokio, eskubidea izango du ordaindutako prezioa berreskuratzeko.

Enpresa kontratistak eskubidea izango du kontrataturiko prestazioa betetzeari buruz egiten diren oharrak ezagutu eta haien gainean entzuna izateko.

Kontratuaren likidazioa.

Harrera edo adostasun akta egiten den egunetik hasi eta hilabeteko epean, kontratistari kontratuaren likidazioa adostu eta jakinarazi beharko zaio eta, hala badagokio, ondoriozko saldoa ordaindu.

46. Berme-epea.

Karatulan ezarritako berme-epea harrera edo adostasun egunetik hasiko da kontatzen.
Epe horretan, behin betiko bermea SPKLren 110. artikuluan adierazitako kontzeptuei aplikatuko zaie.

Zatikako harrerarik balego, zatikako harrera bakotxa egiten den egunetik hasiko da kontatzen harreratutako zati bakotxaren berme-epea.

Egiaztatzen bada berme-epean egindako lanetan akatsak edo hutsak daudela, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari eskatzeko zuzendu ditzala.

Kontratistak ez baditu akatsak zuzentzen kontratazio-organoak ezarritako epean, organo horrek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako nahitaezko betearazpen-bideak erabili ahal izango ditu.

Baldin berme-epea amaitzen bada Administrazioak aurreko idatz-zatietan aipatutako eragozpen edo salaketarik formalizatu gabe, kontratistak ez du erantzukizunik izango egindako prestazioagatik, nahiz eta bete beharko duen SPKLren 314. eta 315. artikuluetan xedatutakoa akatsen konponketari buruz eta obra-proiektuak egiteko helburua duten kontratuen erantzukizunari buruz.

Kontratistak eskubidea izango du kontrataturiko prestazioa betetzeari buruz egiten diren oharrak ezagutu eta haien gainean entzuna izateko.

47. Bermeak itzuli eta kitatzea.

1. Bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko berme-epea amaitu arte. Behin epe hori bukatu ondoren, jarduketa hauek eginen dira:

a) Berme-epean inork ez badu erreklamaziorik aurkeztu behar den moduan eta epean, edo, aurkeztu bada, zuzendu egin badira: kontratazio-organoak bermea itzultzeko edo ezeztatzeko ebazpena emango du.
Ebazpena gehienez bi (2) hilabeteko epean emango da eta kontratistari jakinaraziko zaio, berme epea bukatzen den egunetik hasita.

b) Berme-epean erreklamazioak aurkeztu badira behar den moduan eta epean, eta kontratistak ez baditu zuzendu: kontratuaren arduradunak behar diren jarraibideak emango dizkio kontratistari akatsak behar bezala zuzentzeko. Horretarako, epe bat emango dio kontratistari, eta epe horretan kontratista izango da lanen eta egindako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren arduraduna, SPKLaren 311. artikuluko 2. idatz-zatian azaldutako moduan., berme-epea luzatzeagatik dirurik jasotzeko eskubiderik gabe.

c) Kontratistak kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak betetzen ez baditu horretarako emandako epean, bermea konfiskatuko da.

2. Kontratua amaitzen den egunetik urtebete igarotzen bada, eta berme-epea amaitzen bada harrera formala eta likidazioa eginak izan gabe kontratistari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik, bermeak itzuli edo bertan behera utziko dira, SPKLaren 110. artikuluan aipatutako erantzukizunak garbitu ondoren. Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000,00 eurotik beherakoa bada eta kontratista ETE bat bada, SPKLaren 111.5. artikuluko erreferentzien arabera definitua, urtebeteko epea sei (6) hilabetera murriztuko da.

48. Kontratua suntsiaraztea.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLren 211. Artikuluko (a)-tik i)-ra bitarteko idatz-zatietan eta 313. artikuluan jasota daudenak, bai eta Plegu honen Karatulan aurreikusitakoak ere.

Sektore Publikoko Kontratu Legearen 211.2 artikuluaren arabera, kontratua suntsiarazteko arrazoi bat baino gehiago baldin badago, ondorio ekonomiko ezberdinekin, kontuan hartu beharko da denboran lehenik agertutakoa.

Kontratua suntsiaraztea kontratazio-organoak erabakiko du, SPKLren 212.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, erregelamenduz ezarritako moduan tramitatutako prozeduraren bidez.

.

Kontratua kontratistaren ez-betetze errudunaren ondorioz suntsiarazten bada, bermea konfiskatuko zaio, eta, gainera, konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten kalte eta galeren ordaina eman beharko dio Administrazioari. Kontratistak ordaindu behar dituen kalte-galerak kontratazio-organoak erabakiko ditu, arrazoiak emanda, kontratistari entzun ondoren, eta, besteak beste, kontuan harturik aurreikusitako inbertsiorako dakarren atzerapena eta Administrazioari eragiten dizkion gastu handiagoak.

49. Administrazioaren prerrogatibak.

Kontratazio-organoak du administrazio kontratuak interpretatzeko eta horiek betetzean sortzen diren zalantzak ebazteko eskumena. Era berean, interes publikoko arrazoiak direla medio, kontratuak aldatu eta suntsiaraztea erabaki ahal izango du, bai eta haien ondorioak zehaztu ere, indarra duen legerian ezarritako mugen barrenean eta bertan ezarritako baldintza eta ondorioekin.

Kontratazio organoak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko dituen eskumenak erabiliz ematen dituen erabakiak berehala betearaziko dira.

50. Kontratazio arloko errekurtso berezia.

Kontratazio arloan errekurtso berezia jar dezaketen kontratuen kasuan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik errekurtso administratibo berezia jarri ahal izango zaie SPKLren 44.2 artikuluan aipatzen diren egintzei.
Errekurtso administratibo berezia aukerakoa izanen da eta aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izanen da, SPKLren 50. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Errekurtsoa jartzeko idazkia toki hauetan aurkeztu beharko da nahitaez:

- Kontratazio-organoaren erregistroa (Abadiñoko Udaleko Erregistro Orokorra, San Trokaz plaza, 1)
- edo errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan (Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoaren Erregistroa, Donostia - San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).
- edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuetan,

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidea.

Errekurtsoa jartzeko idazkian datu hauek jasoko dira: errekurritutako egintza, errekurtsoa oinarritzeko arrazoia, errekurtso-jartzaileak baliatu nahi dituen frogabideak eta, hala badagokio, SPKLren 49. artikuluan aurreikusitako neurriak, halakorik eskatzen bada.

Idazki honekin batera dokumentu hauek aurkeztuko dira:

a) Agerlearen ordezkaritza frogatzen duen agiria, non ez den lotuta ageri organo berean egin gabe dagoen beste errekurtso baten jarduketei. Kasu horretan, posible izango da ziurtagiria egiteko eskatzea, prozedurari eransteko.
b) Auzi-jartzailearen legitimazioa frogatzen duen agiria edo agiriak, jaraunspenez edo beste edozein tituluren bidez beste egileren bati eskualdatu bazaio.

c) Errekurritzen den egintza espresaren kopia edo lekualdatzea, edo egintza hori zein espedientetan aurkeztu den edo adieraztea zein aldizkari ofizial edo kontratatzaile-profiletan argitaratu den.
d) Eskubidea funtsatzen duen dokumentua.
e) Helbide elektroniko «gaitu» bat nora bidali, hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera, jakinarazpenak eta komunikazioak.

51. Berraztertze errekurtsoa.

Errekurtso berezirik behar ez duten administrazio-kontratuak esleitzeko prozeduretan ematen diren egintzak berraztertzeko aukerako errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, bat etorrita Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin. eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin.

Idazkaritzako txostena.-

Plegu hau eta Karatula Idazkaritza honek idatzi ditu, kontuan harturik aplikatu beharreko legezkotasun-alderdi guztiak. Beraz, ez da beharrezkoa Idazkaritzak berak txosten juridiko bat prestatzea euren edukiari buruz.

IDAZKARIAK

PLIEGO TIPO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN POR EL PROCEDIMIENTO ABIERTO.

1

La Carátula es el documento base de esta contratación y el que determina y establece el tipo de contrato y sus requisitos.
En consecuencia, este pliego se aplicará a todos los aspectos que no estén no regulados en la Carátula.

ÍNDICE

PARTE I DE LA LICITACIÓN, ADJUDICACIÓN Y FORMALIZACIÓN EN LOS PROCEDIMIENTOS ABIERTOS

I. ELEMENTOS DEL CONTRATO.

1. Objeto del contrato.
2. Régimen jurídico.
3. Información en materia fiscal, medio ambiente, igualdad de mujeres y hombres, protección del empleo, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio-laboral de personas con discapacidad, obligación de contratar a un número o porcentaje específico de personas con discapacidad, y protección de datos.
4. Partes del contrato.
a) Administración contratante b) Contratista
5. Valor estimado del contrato y presupuesto de licitación del contrato.
6. Existencia de crédito presupuestario.
7. Duración del contrato y prórroga.
8. Tramitación del expediente de contratación.

II. LICITACIÓN.

9. Procedimiento de adjudicación.
10. Publicidad de la licitación.
11. Principios: igualdad, transparencia, publicidad, información y confidencialidad.
12. Condiciones para participar.
13. Plazo, lugar y forma de presentación.
14. Notas aclaratorias a la documentación.
15. Presentación previa a la propuesta de adjudicación de documentación acreditativa del cumplimiento de requisitos.
16. Sucesión de la empresa licitadora en el procedimiento

III. APERTURA DE PROPOSICIONES Y ACTUACION DE LA MESA DE CONTRATACION.

17. Mesa de Contratación.
18. Actuación de la Mesa de contratación. a) Apertura del sobre A,B,C.
19. Ofertas con valores anormales o desproporcionados.
20. Criterios de desempate.

IV. CLASIFICACION DE OFERTAS, ADJUDICACIÓN y FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO.

21. Clasificación de ofertas.
22. Documentación a presentar previa a la adjudicación.
23. Adjudicación.
24. Perfeccionamiento del contrato.
25. Formalización del contrato.
26. Plazo para la formalización.
27. Efectos de la no formalización.
28. Seguros.

PARTE II DE LOS EFECTOS, CUMPLIMIENTO Y EXTINCIÓN DEL CONTRATO

V. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

29. Comienzo de los trabajos.
30. Responsable del contrato.
31. Programa de trabajo.
32. Cumplimiento del contrato.
33. Incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso y penalidades.
34. Cumplimiento del plazo y penalidades por demora.
35. Pago del precio.
36. Factura electrónica.
37. Revisión de precios.
38. Obligaciones laborales y sociales.
39. Medios materiales y personales.
40. Condiciones Especiales de Ejecución.
41. Modificación del contrato.
42. Suspensión del contrato.
43. Cesión de los contratos.
44. Subcontratación.
45. Cumplimiento del contrato.
46. Plazo de garantía.
47. Devolución y cancelación de las garantías.
48. Resolución del contrato.
49. Prerrogativas de la Administración.
50. Recurso especial en materia de contratación.
51. Recurso de reposición.

PARTE I DE LA LICITACIÓN, ADJUDICACIÓN Y FORMALIZACIÓN EN LOS PROCEDIMIENTOS ABIERTOS

I.- ELEMENTOS DEL CONTRATO

1. Objeto del contrato.

El objeto de este contrato lo constituye la prestación que se recoge en la Carátula del Pliego.

La prestación se ajustará a las condiciones que figuran en el Proyecto, a lo dispuesto en este Pliego y en el de Prescripciones Técnicas, que formarán parte del contrato.

En el caso que así se autorice en la Carátula del Pliego, los licitadores podrán aportar las variantes que correspondan a los requisitos y condiciones señaladas, y en el número máximo especificado en dicho punto.

En caso de que el contrato se fraccione en lotes, constituye el objeto de cada lote una unidad funcional susceptible de realización independiente. Cada lote podrá ser objeto de adjudicación separada.

Prevalencia del pliego administrativo sobre el del Proyecto.

2. Régimen jurídico.

El contrato tiene carácter administrativo y se regirá por:

- Las cláusulas contenidas en este pliego, conformadas con las especificaciones de su Carátula y en el Pliego de Prescripciones Técnicas.
- La Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP).
- El Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (RGLCAP).
- Real Decreto 817/2009 de desarrollo parcial de la Ley 30/2007 de 30 de octubre de la Ley de Contratos del Sector Público.
- La Ley de Bases de Régimen Local, de 2 de abril de 1987 y el Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de abril por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local (LBRL).
- El Título 1II del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, aprobado por Decreto 17 de Julio de 1955.
- Cualesquiera otras disposiciones que regulen la contratación, tanto a nivel estatal como autonómico y local, y que resulten aplicables al ámbito local.
- Con carácter supletorio, se aplicarán las restantes normas de Derecho Administrativo y, en su defecto, las normas de Derecho Privado.

El desconocimiento del contrato en cualquiera de sus términos, de los documentos anejos al mismo, o de las instrucciones, pliegos o normas de toda índole dictados por la Administración que puedan tener aplicación en la ejecución de lo pactado, no eximirá al empresario de la obligación de su cumplimiento.

En caso de discrepancia entre lo establecido en este Pliego y en el Pliego de Prescripciones Técnicas, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego excepto en aquellas cuestiones y especificaciones de carácter técnico.

3. Información en materia fiscal, medio ambiente, igualdad de mujeres y hombres, protección del empleo, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral de personas con discapacidad, obligación de contratar a un número o porcentaje específico de personas con discapacidad, y protección de datos. (art.129)

En los siguientes organismos se puede obtener información de las obligaciones y disposiciones vigentes en relación con:

- Igualdad de mujeres y hombres: Organismo Autónomo EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer.
- Fiscalidad: Haciendas Forales de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y de la Comunidad Foral de Navarra, y Agencia Estatal de Administración Tributaria.
- Protección del medio ambiente: Sociedad Pública IHOBE.
- Protección del empleo, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales: Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Trabajo y Justicia e Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales OSALAN.
- Inserción socio-laboral de las personas con discapacidad y obligación de contratar un número o porcentaje específico de personas con discapacidad: Organismo Autónomo LANBIDE.
- Protección de datos:

  La entidad o persona adjudicataria se compromete a cumplir las exigencias previstas en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas.

  Los Datos Personales contenidos en los impresos de recogida de documentación deberán ser recogidos bajo el consentimiento de la persona afectada. El uso de dichos datos se registrará exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros con los limites previstos en la legislación de protección de datos, especialmente lo previsto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos.

  Los datos proporcionados se destruirán una vez finalizados los trabajos, quedando exclusivamente los datos que resulten necesarios para la prescripción de responsabilidades y en todo caso hasta que se ejerza su derecho de cancelación, salvo los límites de interés público u obligación legal. Por tanto existirá el derecho de acceso a los datos personales, rectificar los datos inexactos o solicitar su portabilidad o supresión cuando los datos ya no sean necesarios. Los datos no se cederán a terceros salvo exigencia legal.

Asimismo, la empresa adjudicataria describirá en el pliego las medidas técnicas y organizativas que tiene en su compañía para la protección de los datos recogidos, con especial referencia al cumplimiento del Reglamento y las medidas Tomadas de carácter organizativo y tecnológico en materia de datos sensible, y la posible necesidad de evaluación de impacto.

Indicará quien es el responsable de los procesos y quien es la persona encargada de la seguridad con el nombramiento del Delegado/a de Protección de Datos

- **Propiedad Intelectual y Confidencialidad**
